

ERAKUSKETAK

'Sahara, askatasunaren basamortua' erakusketa • Bilboko Foru Artxiboko erakusketa aretoan • Azaroaren 30a arte

Saharar herriaren egoera gogoan

JOAN DEN ASTEAN Bilboko Foru Artxiboan (Maria Diaz de Haro kalea, 11) *Sahara, askatasunaren basamortua* izenburuko erakusketa inauguratu zen, Sabino Arana kultur elkargoaren eskutik. Bertan argazkiak, ikus-entzunezko materialak eta Saharako zenbait gauza eta tresna zahar ikus daitezke (jantziak, te-ontziak, hai-mak...). Erakusketaren helburua da saharar herria jasaten ari den egoera erbestean ezagutaraztea, eta herri

horren autodeterminaziorako erreferenduma egin dadila aldarrikatzea. Izan ere, egun, sahararrek Aljeriako erdi-mendebaldeko Tinduf lurraldean jarraitzen dute. Lurraldea itxita dago turismoarentzat nahiz komunikabideentzat, eta defentsahesi militar batek babesten du. Dena dela, Juan Armentia eta Jose Alberto Urbiena argazkilariek Aljeriako Hamadaraino heltzea lortu zuten, eta testigantza interesgarria ekarri dute Euskal He-

rrira. Erakusketan Armentia eta Ubiernaren argazkiez gain, Paulino Oriberen diapositibak, Kepa Gonzalezen ikus-entzunezko lan bat eta sahararrek erabiltzen dituzten gauzak ikus daitezke. Fronte Polisarioko Mohamad Salemek, Bizkaiko Foru Aldundiko Koldo Narbaizak eta Sabino Arana Elkargoko Itxaso Atutxak ere parte hartu dute erakusketan.

Urtzi Urkizu
DONOSTIA



EGUNKARIA

Mohamed Salem, Juan Armentia, Saharako emakume bat eta Txomin Aurrekoetxea, erakusketaren inaugurazio egunean.

MUSIKA

BILBO

► **Los Sencillos.** Bilborock aretoan, 20:30etan.

DONOSTIA

► **Turtlehead, Witihn Reach, The Almighty Trigger Happy, Misconduct.** Mogambo aretoan. Hardcore-punk kontzertua.
► **Europa Elegante, O. Barroca, Friburgo +II, Gardiano Armonico.** Kursaallean, 20:00etan.

GASTEIZ

► **Ensemble Innovación hirukotea.** Vital Kutxa fundazioko aretoan, 20:00etan.

ANTZERKIA

DEBA

► **Eskola Antzerkia.** Aizarnako Zuzi-zuriak taldearen eskutik, Goaz aretoan, 15:00etan.
► **Xagukumeak.** Hika antzerki taldearen eskutik, Foruen plazan, 17:00etan.

DONOSTIA

► **Gauzen arima.** Teresa Andonegi eta Richard Diez aktoreen eskutik, Loiolako kultur etxean, 20:00etan.

GASTEIZ

► **Zu gabe.** Noba antzerki taldearen eskutik, Unibertsitate-Pabiloian, 12:15etan.
► **Hamlet.** Teatre Lliureren eskutik, Principal Antzokian, 20:30etan.

ZINEMA-BIDEOA

BILBO

► **Sonatine.** Karmengo aretoan, 19:45etan.

HERNANI

► **Antxon eta Gaizka, Patagoniako Torres del Painen bide**

berri bat. Diapositiba emanaldia Andoni Areizagaren eskutik, Biterin, 19:30etan.

ERRENTERIA

► **Ene erraietara.** Diapositiba emanaldia, Reina aretoan, 19:30etan. Egilea: Jose Ramon Agirre. Gidoia: Pako Aristi. XIII. Xenpelar kultur astea.

GERNIKA

► **Lau Haizetara.** Kultur etxean, 19:00etan.

IRUÑEA

► **Nafarroak Iparraldera ditu mugak.** Diapositiba emanaldia Txantrea Mendi Taldearen eskutik, Auzotegin, 20:00etan.

DANTZA

BARAKALDO

► **Agur Titán.** Q.ro y Cia konpainiaren eskutik, Barakaldo Antzokian, 11:30etan eta 15:15etan.

HITZALDIA

BARAÑAIN

► **Importancia del juego y el juguete en el niño/a y el papel de los padres.** Nekane Navarroren eskutik, kultur etxean, 19:30etan.

BEASAIN

► **Grafologiari buruzko hitzaldia.** Irune Ibarraren eskutik, Udal Batzar aretoan, 19:00etan.

BILBO

► **Primavera con esquina rota.** Benedettiren inguruko literatur saolasaldia. Espacio de los Mundosen, 19.30etan.
► **Krutwig eta euskara batua.** Xabier Kintanaren eskutik, Bidebarrieta bibliotekan, 19:30etan.

DONOSTIA

► **Relaciones satisfactorias: saber y atreverse.** Mikel Pikazaren eskutik, Okendo kultur etxean, 19:30etan.

DURANGO

► **Euskararen etorkizuna.** Berbaroren txokoan, 19:30etan. Hizlaria: Jose Javier Iñigo.

GASTEIZ

► **Adiskidetze kultura baten alde.** BAK eta Elkarriren eskutik, Villasuso jauregian, 19:30etan.
► **Ikasketa estiloei buruzko ikerkuntzaren ildoak.** Jose Domingo Gallegoren eskutik. Magisteritzako Unibertsitate Eskolako 2.2. ikasgelan, 17:30etatik 19:30etara.

LASARTE

► **Euskal zibilizazioaren sustaiak.** Hitzaldi aretoan, 19:00etan. Hizlaria: Gerarta Arotzena.

LEGAZPI

► **Anorexia eta bulimia.** Kultur etxean, 15:30etan. Iratxarri Etxekoandreen Elkartek antolatutako hitzaldiak.

OÑATI

► **Aisialdia edo denbora librearen etxean, kalean ala eskolaz kanpoko jardueretan.** Haur ete lehen hezkuntzako gurasoei zuzendua. Txantxiku ikastolako aretoan, 18:30etan. Hizlaria: Felix Etxeberria.

IKASTAROAK

BASAURI

► **Adierazpen plastika tailerrak.** Argazkigintza, pintura eta irudigintza, keramika, eskulturgintza, eta bestelako ekitaldiak. Izena emateko edo argibide gehiagorako Social Antzokira jo (94-44263185 telefonora dei dezakezue).

BILBO

► **Elikadura kirolean.** Nola hobetu errendimendua kirolean elikagaien bitartez. Elikera kontsultan izango da (Berastegi kalea, 1), azaroaren 13tik 27ra. Argibideak eta izen ematea 94-4249676 telefonon.
► **Alde Zaharreko Euskal Txokak eta Lizardi Euskaltegiak antolatutako ikastaroak.** Txalaparta, literatura, euskal dantzak, argazkilaritza, panderoa eta mintza-praktika ikastaroak. Urritik abendura iraungo dute. Argibide gehiagorako eta izena emateko 656759309 telefonora dei dezakezue.
► **Galibo dantza espazioak antolatutako ikastaroak.** Meditazio aktiboa azaroaren 12, 13 eta 14an (aurkezpen ekitaldia azaroaren 9an). Argibideak eta izena emateko deitu 94-4420626 telefonora.

GETXO

► **Zeramika, Pandero eta jakintza ikastaroak.** Informazio eta matrikula Bizarra Lepoaneko egoitzan (Saldisu, 5), 94-4301932 telefonon.

HERNANI

► **Lau ibilaldi ipuinean barrena.** Ipuin ikastaroa Jon Alonsoaren eskutik. Dobera Euskara Elkartek azarorako antolatu du. Xehetasun gehiago 943-332799 telefonon.

IRUÑEA

► **Txalaparta, eskulanak, masajea eta argazkilaritza ikastaroak.** Alde Zaharreko auzo elkartek antolatuta. Izena lehen bait lehen eman behar da.
► **Garapen pertsonalerako eta komunikazio eraginkorretarako ikastaroa.** Iñaki Olaskoaga psikologoaren eskutik. Informazioa 948-220902 telefonon.

LAZKAO

► **Kotoizko arropetan marraz-**

kiak margotzeko ikastaroa.

Azaroaren 22tik 25era izango da (19:00etatik 20:00etara), Gerriko Txokoan. Izena azaroaren 20a baino lehen eman behar da, 943-886500 telefonon. Oharra: kotoizko arropa bat eta xipu mehe bana ekarri.

► **Begirale eta zuzendari ikastaroa.** Eziko Udalekua. Izena emateko epea azaroaren 29a amaituko da. Telefonoa: 943-333880.

LEIOA

► **Trikitixa, alboka, pandero eta txalaparta ikastaroak.** Kaos kultur gunean. Argibideak eta izen ematea 94-4316841 telefonon.

ORDIZIA

► **Zeramika ikastaroa.** Kultur etxean izango da asteazken eta ostiraletan. Helduentzako ikastaroa da eta datorren udara arte iraungo du. Informazio gehiago, 943 80 56 30 zenbakian.

ZUMAIA

► **Udalak antolatutako ikastaroak.** Ardo dastaketa ikastaroa: Larunbatetan izango da 10:00etatik 12:00etara, azaroaren 13tik aurrera. Matrikula: 5.000 pezeta. **Altzarien erreku-perazioa:** 50 ordukoa izango da, azaroaren 10ean hasita. Asteazken eta ostiraletan, 15:00etatik 17:00etara. Matrikula: 7.000 pezeta. **Internet Praktiko eta Web orriaren eraketa:** Larunbatetan izango da 10:00etatik aurrera. Guztira 40 ordu. Matrikula: 5.000 pezeta. Argibide gehiago 943-860250 telefonon. **Espeleologiaren hastapenak:** Larunbatetan izango da 10:00etatik 13:00etara. Lehen guna azaroaren 13a. Matrikula: 3.000 pezeta. **Larrua lantzeko tailerra:** Larunbatetan izango da 10:00etatik 13:00etara (guztira 48 ordu). Matrikula: 7.000 pezeta.